BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA, AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK SA ETA GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE SAREN URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

Donostian, 2021eko irailaren 22an

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA, AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK SA ETA GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE SAREN URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA[1]

Prozedura honen xedea da Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SAk eta Gestión de Centrales del Añarbe, SAk kontratista bat aukeratzea, Baldintza Administratibo Berezien Agiri honen Karatularen 1. puntuan (aurrerantzean, Karatula) adierazitako zerbitzuak eman ditzan.

Aipaturiko zerbitzu horiek Agiri honen, Baldintza Teknikoen Agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera emango dira.

Kontratua hainbat sortatan banatu eta zati bakoitza bereiz egitea aurreikusten bada, **Karatularen 1. puntuan honako hauek adieraziko dira**: kontratua zehazki zein sortatan banatuko den; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat sortatara aurkez dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat sorta esleitu dakizkiokeen; eta kasu bakoitzean finkatzen diren bestelako alderdiak.

Karatularen 1. puntuan adierazi da kontratuaren CPV Kodea.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOA

2.1 ERAKUNDE KONTRATUGILEAK

Erakunde kontratugileak Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA (aurrerantzean, AUSA) eta Gestión de Centrales del Añarbe, SA (aurrerantzean, GECASA) izango dira.

AUSAk prozedura kudeatuko du bere kabuz eta Gestión de Centrales del Añabe, SAren izenean.

Hori horrela izanik:

- AUSAk bi erakunde kontratugileekin egin beharreko kontratuak prestatzeko jarduerak egin eta eskaintza onena identifikatuko du.

- Ebaluazio Batzordeak eskaintza onena identifikatu ondoren, eta AUSAk GECASAri egindako izapideen eta prozeduraren egoera deskribatzeko txosten deskriptiboa igorri eta dagokion dokumentazioa entregatu ondoren, geroko

[1] Agiri honetan “kontratuari” erreferentzia egitean, SOCIEDAD AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, S.A. y con GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE, S.A. erakundeekin egin beharreko kontratuetako bakoitzari buruz ari garela ulertuko da.

izapideak AUSAk eta GECASAk modu bereizian egingo dituzte, eta eduki berbereko bina kontratu izenpetuko dira horietako bakoitzarekin.

Hau da, Ebaluazio Batzordeak eskaintza onena identifikatu ondoren, Baldintza Administratibo Berezien 17. klausulan aipatutako dokumentazioan eskaera, kontratuen esleipena, esleipenaren jakinarazpena eta argitalpena, eta bi kontratuen sinadura bi erakunde kontratugileak egingo dituzte, modu indibidualean.

Kontratuak sinatzen diren une beretik, kontratuak exekutatzeko faseei eta amaierari buruzko alderdi guztiei lotutako eskubideen eta betebeharren erregimenak bi erakunde kontratugileei modu indibidualean dagozkiela ulertuko da.

Hori horrela izanik, lizitazio honen xede diren zerbitzuak era berean eskatu eta kontratatu ditzakete AUSAk edo GECASAk, eta eskatu dituen erakundeak fakturatu eta ordainduko ditu.

Hori dela eta, agiri hauetan “AUSAri” edo “erakunde kontratugileari” egindako erreferentzia oro honako honi dagokiola ulertuko da:

- AUSA, bi erakundeetako bakoitzarekin egin beharreko kontratuak prestatzeari eta esleitzeari lotutako jarduerei dagokienez (zehazki, kontratuak prestatzeari eta esleitzeari buruzko jarduerak, Ebaluazio Batzordeak eskaintza onena identifikatu arte).

- Era berean, erakunde bati edo besteari, honelakoetan: AUSA eta GECASA, Ebaluazio Batzordeak eskaintza ekonomiko onena identifikatu ondorengo faseei dagokienez, hau da: Baldintza Administratibo Bezerien Agiriaren 17. klausulan eskatutako dokumentazioaren eskaera, kontratuen esleipena, esleipenaren jakinarazpena eta argitalpena, eta kontratuen formalizazioa, sinadura, exekuzioa eta iraungipena.

2.2 KONTRATAZIO ORGANOA

Karatularen 2. puntuan adierazi dena da Kontratazio Organoa, eta hark, hala badagokio, eta aplikagarri diren zuzenbide pribatuko arauen arabera, egokitzat hartzen dituen pertsonei berariaz ahalmena eman ahal izango die kontratuarekin zerikusia duten zenbait jarduera gauzatzeko.

3. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko zaio kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintzari, Agiri honetan zehaztutako esleitzeko irizpideei jarraiki (aurrerantzean, eskaintza onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera **karatularen 3. puntuan** adierazten da, hala badagokio.

Aldaerak onartuz gero, **karatularen 3. puntuan** adieraziko dira gutxieneko eskakizunak, modalitateak eta haien ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Kontratuko dokumentutzat joko dira, esleipena formalizatu ondorengo kontratuaz gain, honako dokumentu hauek:

- Klausula Administratibo Berezien Agiri hau eta bere Karatula.
- Baldintza Teknikoen Agiria.
- Esleipendunak aurkeztu duen eskaintza.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazi den beste edozein dokumentu.

Dokumentu horiek kontratua formalizatzeko ekintzan bertan sinatuko ditu enpresa esleipendunak, haiekin ados dagoela erakusteko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **karatularen 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. OINARRIZKO LIZITAZIO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **karatularen 6.1 puntuan** adierazi dena izango da.

Bestalde, **karatularen 6.1 puntuan** zehazten da kontratuaren prezioa.

Aipaturiko kontratuaren prezio horrek kontratua gauzatzeko beharreko kostu guztiak hartuko ditu barne, besteak beste, aipatzeko baino ez eta ez mugatzeko, honako hauek:

- Kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako moduan;

ez da onartuko aldez aurretik azken prezioan aurreikusi behar ziren kontzeptuak gero fakturatzea.

- Kontatuaren exekuzioak berezko duen kontzeptu oro, eta hura gauzatzeko beharrezko diren langileekin loturiko gastu guztiak (alegia: soldatak, Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko ordutegian eta jaiegunetan eginiko lanak, bajagatiko edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, istripu aseguru indibidualak, eta abar), baita zerga (BEZa kenduta), aseguru, lizentzia, garraio eta joan-etorri gastu, baimen eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

- Kontratistak kontratua egikaritzeko erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta gailu guztiak.

- Erakunde kontratugileak, kontratua behar bezala garatu eta bete dadin, beharrezkotzat hartzen dituen lan edo informazio bilera guztietara joatea.

- **Karatularen 6.1 puntuan** adierazitako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluaren ondorioetarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena, (aurrerantzean SPKL), kontratuaren balio zenbatetsia **karatularen 6.2 puntuan** adierazitako zenbatekokoa da.

SPKLren 101. artikuluak xedaturikoaren arabera kalkulatu da balio zenbatetsi hori.

Aurreikuspen horrek ez du konpromiso zehatzik sortzen erakunde kontratugilearentzat.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa entitate kontratatzaile bakoitzeko ordainduko da, ondoren adierazten diren uneetan:

- Urteko prezioaren %50, atariko landa-lana egin ondoren.
- Urteko prezioaren %50, dagokion auditoretza-txostena eman ondoren.

Kontratuaren prezioa adierazitako uneetan ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta dagokion entitate kontratatzaileak faktura onartu ondoren.

Kontratistak hamabost egun naturaleko epean egin beharko du faktura zehaztua, zerbitzuei dagokien aldiaren azken hilabetea bukatzen denetik hasita.

Erakunde kontratugile bakoitzak aipatutako hileko zenbatekoa ordainduko du 30 egun naturaleko epean, zerbitzuei dagokien hilabetea amaitzen denetik, baldin eta faktura aipatutako epean igorri bada eta dagokion erakunde kontratugilearen oniritzia badu.

Agiri honetan aurreikusitako kontratuaren xedetik kanpo dagoen lanik edo zerbitzurik ez da ordainduko, ez eta, hala badagokio, erakunde kontratugileak aldez aurretik eskatu ez duenik.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan xedaturikoa beteko da.

10. PUBLIZITATEA

Honako hauek argitaratuko dira erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean:

a) Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.

b) Kontratuaren esleipenaren iragarkia.

c) Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.

d) SPKLren 63. artikuluan jasotako gainerako informazioa.

Erakunde kontratugilearen profilera sartzeko honako webgune honetara jo beharko da: http://www.contratacion.euskadi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak **karatularen 9. puntuan** adierazitako behin betiko berme desberdin bat jarri beharko du erakunde kontratugile bakoitzaren alde.

Berme horiek, benetan gauza daitezen, dagokion erakunde kontratugileak eskatu beharko ditu.

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermeak jarri dituela egiaztatu beharko du 10 laneguneko epean, Kontratazio Organoak horretarako egindako eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

SPKLren 110. artikuluak jasotako kontzeptuei erantzungo diete behin betiko berme horiek.

Bermeak SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduren batean eratu ahal izango dira.

Abal moduan emanez gero, agiri honetan **I. eranskin** gisa txertaturiko ereduaren arabera egingo da.

Bitarteko elektronikoen bidez, bermeak jarri direla egiaztatu ahal izango da.

Enpresa kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte ordainak behin betiko bermeen kontura gauzatzen badira, enpresa kontratistak hura berrezarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, zigorrak edo kalte ordainak gauzatzen diren egunetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean, bestela kontratua suntsitu ahal izango da.

Kontratu jakin bat aldatzearen ondorioz haren prezioa aldatzen denean, kontratistak egokitu egin beharko du dagokion behin betiko bermea, aldaturiko prezio berriarekiko dagokion proportzioa gorde dezan. Kontratistak bermearen aldaketa egiteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, aldatzeko erabakia jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Bermeak SPKLren 111. artikuluan ezarritakoaren arabera itzuli eta ezeztatuko dira.

Zehazki, bermeak ez dira itzuli edo ezeztatuko, harik eta berme epea amaitzen eta dagokion kontratua zuzen betetzen den arte, edo kontratuaren suntsiarazpena adierazten den arte, kontratistak horren errudun izan gabe.

Klausula honek aurreikusi ez dituen gainerako kontuetan SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoak izango dira aplikagarri.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak nahiz atzerritarrak izan, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratua egiteko debekurik ez badute eta beren kaudimena egiaztatzen badute.

Era berean, kontratuak xede dituen prestazioak aurrera eramateko, hala badagokio, eska daitekeen gaitasun profesionala edo enpresa gaitasuna izan beharko dute lizitatzaileek.

Pertsona juridikoak, kontratuaren prestazioak haien Estatutuen edo sorrera arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedeen edo jarduera esparruaren araberakoak baldin badira bakarrik izan daitezke kontratuaren esleipendun.

Erakunde kontratugilearekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, betiere, espainiarrak ez diren Europar Batasuneko Estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetako enpresek, finkatuta

dauden Estatuko legeriaren arabera, baldin eta eskatzen den prestazioa emateko gauza badira; halakoetan, SPKLren 67. artikuluan xedaturikoa izango da aplikagarri.

Enpresa horiek finkatuta dauden Estatuko legeriak baimen berezi bat eskatzen badu edo dena delako zerbitzua eman ahal izateko erakunde jakin bateko kidea izateko eskatzen badu, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko hitzarmenetatik eratorrita Espainiak dituen betebeharren aplikazioari kalterik eragin gabe, EBko kide edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bidez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen dutela Espainiako enpresen parte hartzea SPKLko 3. artikuluan zerrendatzen diren sektore publikoko erakunde edo entitateekin kontratatzerakoan, funtsean, antzekoa den moduan. Txosten hori dagokion atzerriko Espainiako Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezturiko dokumentazioarekin emango da.

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute helburu horretarako sortzen diren aldi baterako enpresa elkarteek. Ez da beharrezkoa enpresa horiek eskritura publikoaren bidez formalizatzea kontratua haien alde esleitzen ez den bitartean, eta SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

Karatularen 10. puntuan adierazitako gutxieneko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesional edo teknikoa izan beharko dute lizitatzaileek.

Hala badagokio, lizitatzaileek **karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak jarri beharko dituzte kontratua egikaritzeko.

Osagarri gisa, hala badagokio, **karatularen 10. puntuan** adierazitako baldintza espezifikoak bete beharko dituzte lizitatzaileek.

Lizitatzaileei eskatzen bazaie kontratua gauzatzeko giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk jartzeko konpromisoa hartzeko, konpromiso hori kontratuko funtsezko betebeharra izango da SPKLren 211. F) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta horrenbestez, obligazio hori ez bada betetzen, kontratua suntsitu ahal izango da, erakunde kontratugilearen borondatera.

Bertan behera uztearekiko alternatiba gisa, kontratistak kontratuaren exekuzioari esleituriko pertsona aldatzen badu alde bakarretik, izan langile propioa edo azpikontratatua, erakunde kontratugileak eraginpeko pertsonaren berehalako afektazioa eskatu ahalko du edo, bestela, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta ezinezkoa bada, hura prestakuntza eta esperientzia bera duten giza baliabideengatik berehala ordezkatzea. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen esanbidezko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo eskaturiko baliabideak esleitzeko konpromisoa egiaztatzeko lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta/edo bitartekoetan oinarritu ahalko dira, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa gorabehera, betiere frogatzen badute kontratuaren indarraldi osoan zehar kaudimen eta/edo bitarteko

horiek izango dituztela, eta jotzen duen erakundeak ez badauka kontratatzeko debekurik.

Beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak erabili nahi dituzten lizitatzaileek halaxe adierazi beharko dute 1. gutun azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) II. zatiko C atalean).

Horretaz gain, eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, frogatu beharko du beharrezko baliabideak izango dituela eskura, horretarako erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta (**II. eranskinean** bildutako ereduarekin bat eginda).

Konpromiso hori notario aurrean eman beharko du(te) eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak jotzen du(t)en erakunde(a/e)k eskaturiko kaudimena eta/edo baliabideak esleitzeko konpromisoa egiaztatzeko, eta honako hau adierazi beharko du(te): ezagutzen du(t)ela lizitatzailea aurkeztu den lizitazioko baldintzen irismen osoa; dagokion kaudimena eta/edo esleitzeko baliabideak ditu(zt)ela, horren egiaztagiriak aurkeztuta (17. klausulan aurreikusitako moduan); eta bere(n) borondate ezeztaezina adierazten du(t)ela adierazitako lizitatzailearen esku kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzeko, esleipendun suertatuz gero (Kode Zibileko 1257.2 artikuluan adierazitakoaren esanbidezko onarpenarekin, erakunde kontratugileak esanbidez baimendu beharko duelarik haren ordezkapena edo aldaketa). Idazki hori aurkezteak esan nahiko du erakunde kontratugileak konpromisoa onartzen duela, baldin eta dagokion lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

Konpromiso hori 10 laneguneko epean aurkeztuko du eskaintza onena egin duen lizitatzaileak, Kontratazio Organoak horretarako egindako eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Klausula honek aipagai dituen kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken datan bete behar dira, eta kontratua gauzatzeko unean ere iraun behar dute.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTUAK AURKEZTEA

13.1 AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean egongo da eskuragarri lizitazioa iragartzen den egunetik, eta proposamenak aurkezteko denbora tarte osoan zehar.

13.2 AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betez, baldin eta ez den SPKLaren xedapen gehigarri horretako 3. atalean aurreikusitako baldintzaren bat ematen eta **Karatularen 11.1. puntuan** hala adierazten.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzako Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren webgunean adierazten dira honako helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus.

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bi fasetan bidali ahal izango dira. Lehendabizi, eskaintzaren aztarna elektronikoa transmitituko da. Hori jasoz gero, edozein ondoriotarako eskaintza aurkeztu dela ulertuko da. Eta ondoren, 24 orduko epean, eskaintza bera bidali beharko da. Bigarren bidalketa aipatutako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa deitzen zaio honako baldintzan hauek betetzen dituen datu-multzoari: datu horiek sortzeak, zalantzarik gabe, eskaintza beraren edukiarekin erlazionatzen direla eta eskaintza horren edukian aldaketaren bat egin dela hautematea bermatzen du. Era horretan, eskaintzaren integritatea bermatzen da. Espedientean jaso behar diren dokumentuen kopia elektronikoek kasurako indarreko legerian finkatutakoa bete beharko dute, administrazio-prozedura erkideari dagokionez, eta bertan finkatutako ondorioak izango dituzte.

13.3 FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Agiri honetan eta haren Karatulan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentazioan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio interesdunen proposamenak, eta proposamen horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela klausula horien guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Artxibo elektroniko bakoitzean ondoren adierazten diren dokumentuak sartuko dira, bai eta horietako bakoitzean sartutako dokumentuen zerrenda zenbakiduna ere.

1. gutun azala. “AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”

Lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Agiri honekin batera **III. eranskin** gisa doan Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) formulariora egokituko dena eta ondoren adierazten denaren arabera beteko dena:

e) Europar Batzordearen 2016/7 (EB) gauzatze Araudiaren I. eranskinean jasotako Jarraibideen arabera bete beharko da EKAB, araudi horrek finkatzen baitu Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatua.

f) EKABeko "IV. Atala: Hautatzeko irizpideak" atal zehatzari dagokionez, enpresa lizitatzaileek soilik A atala bete behar dute: "Hautatzeko irizpide guztiei dagokien adierazpen globala".

g) Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak erabili behar baditu Agiri honen 12. klausularen arabera, haietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena, bertan jasota EKABen II. zatiko A ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B ataletan ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") eta III. zatian eskatutako informazioa.

h) Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta EKABeko II – V zatietan kasu horietarako eskatutako informazioa emango da bertan.

2. Baldin eta, **karatularen 10. puntuarekin bat etorrita**, kontratuaren egikaritzarako gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak jartzea eskatzen bada, lizitatzaileek kontratuaren egikaritzari aipatutako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, agiri honetan **IV. eranskin** gisa aurkeztutako ereduaren arabera.

3. Aldi baterako enpresa elkarte batean lehiatu nahi diren enpresaburuek elkartea eratzen dutenen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dute, baita aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa ere, esleipendunak izanez gero. Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta geratuko dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, kontratua iraungi artean haren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango dituena, kopuru handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko botere elkartuak edukitzeko aukera baztertu gabe.

4. Atzerriko enpresek, gainera, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko beharko dute, eta uko egingo diote, hala behar bada, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

OHARRA:

Erakunde kontratugileak frogagiri guztiak ala batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaileei, 1. puntuan aipatutako adierazpenaren indarraldiari edo xedeari

dagokionez arrazoizko zalantzak daudela uste duenean edo prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean.

Hala ere, enpresaburuak ez ditu aurkeztu beharko aipaturiko leku horietan jasota dauden datuen frogagiriak edo bestelako egiaztagiriak, baldin eta Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatua badago edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko datu base nazionalean ageri bada enpresaren espediente birtual, dokumentuen biltegiratze sistema elektroniko edo aurrekalifikazio sistema gisa, eta aipatutako organoek haiek doan eskuratzeko aukera badute.

2. gutun azala. "KUANTIFIKATZEKO BALIO JUDIZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek **karatularen 11.2 puntuan** adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun azal honetan.

Lizitatzaileak kontu berezia izango du gutun azal honetan jaso beharreko dokumentazioa prestatzeko unean, eta haren edukiari buruz adierazitakoetara egokituko du. Era berean, formulen erabileraren bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioari lotutako alderdiak ezagutzera eraman dezakeen erreferentziarik ez du egingo.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak atzera bota eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Lizitatzaileek emandako informazioa benetakoa dela egiaztatzeko baldin bada, erakunde kontratugileak beretzat gordeko du egokitzat hartzen dituen egiaztatze lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu osagarri eskatzeko eskubidea.

Baldin eta, **karatularen 12. puntuarekin** bat etorrita, kontratua exekutatzeko jarri beharreko giza baliabideak baloratzen badira, kontratistak bere kabuz kontratuaren exekuzioari esleituriko pertsonak aldatzen baditu, izan langile propioak edo azpikontratatuak, erakunde kontratugileak konprometitutako pertsonaren berehalako afektazioa eskatu ahalko du edo, bestela, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta ezinezkoa bada, hura prestakuntza eta esperientzia bera duten giza baliabideengatik berehala ordezkatzea. Pertsona horiek erakunde kontratugilearen esanbidezko baimena izan beharko dute.

3. gutun azala "FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA".

Lizitatzaileek agiri honekin batera **V. eranskin** gisa doan eredura egokituta aurkeztu beharko dute formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

Erakunde kontratugileak esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratua indarrean dagoen bitartean, egiaztatu ahal izango du 1., 2. eta 3. gutun azaletan sartutako dokumentuen edukia egiazkoa den, eta enpresak aurkeztutako datuak edo inguruabarrak okerrak edo gezurrezkoak izatea kontratua ezeztatzeko arrazoi izan daiteke, kontratistak bere betebeharrak ez bete izanagatik.

14. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Karatularen 12. puntuan adierazitakoak izango dira esleipen irizpideak, dagokien haztapenaz adieraziak.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Karatularen 13. puntuan adierazitako kideek osatutako Ebaluazio Batzordearen laguntza izango du Kontratazio Organoak.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aldez aurretik kalifikatuko du 1. gutun azalean aurkeztutako dokumentazioa (“Aurretiko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa”), beharreko denboran eta moduan aurkeztu dena. Aurkeztutako dokumentazio horretan konpontzeko moduko akatsak sumatzen baditu, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari akats horiek zuzen ditzan.

Lehen gutun azala 20 egun naturaleko epean irekiko da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den datatik zenbatzen hasita.

Ondoren, 2. gutun azala irekiko da (“Kuantifikatzeko balio judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa”), bertan sartutako dokumentazioa aztertu eta baloratu ahal izateko.

Irizpideak balio judizioaren arabera kuantifikatu behar direnean eta haiek formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa esleitua dutenean, **karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako batzordea eratuko da balio judizioaren arabera kuantifikatu behar diren irizpideak baloratzeko.

2. gutun azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) irekiko da.

3. gutun azala (“Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa”) ireki aurretik, kuantifikatzeko balio judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

Hori egindakoan, 3. gutun azalean jasotako dokumentazioa irekiko da, hura aztertu eta baloratu ahal izateko.

3. gutun-azala irekitzea ("Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") jendaurreko ekitaldi publikoan egingo da. Data, ordua eta tokia (proposamenak aurkezteko bitarteko elektronikoak erabiltzen direnean izan ezik) lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde kontratatzailearen Kontratugilearen Profilean argitaratuko da.

Ebaluazio Batzordeak atzera botako ditu urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako auzietan murgilduta dauden proposamenak, eta Kontratazio Organoari aurkeztuko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda, goitik beherako ordenan, **Karatularen 12. puntuan** ezarritako esleipen irizpideei jarraiki. Gainera, eskaintzarik onena identifikatuko du.

Baldin eta, lizitatzaileren bat kanporatzen bada, erakunde kontratugileak kanporatzea berariaz jakinaraziko dio lizitatzaile horri.

Bere proposamena egin aurretik, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena izan duen lizitatzailearen eskaintza baxuegia baldin bada, hala badagokio, **karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Esleipen proposamenak ez du sortzea proposatutako lizitatzailearen aldeko inolako eskubiderik, erakunde kontratugilearen aurrean. Edonola ere, Kontratazio Organoak, adierazitako proposamenarekin bat ez datorren kontratua esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu beharko du.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako aukeratutako lizitatzailea hautatzeko, erakunde kontratugile bakoitzaren Kontratazio Organoak, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin bat egingo du. Bestela, Kontratazio Organoak proposamena ez onartzeko erabakia arrazoitu beharko du, eta, hala behar bada, proposamenen behin betiko sailkapena emango du.

Erakunde kontratugile bakoitzaren Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartzen duenean, erakunde kontratugile bakoitzak hamar laneguneko epea emango dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, eskaera jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, jarraian adierazitako dokumentazioa aurkezteko:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratugilearen kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak, eta Agiri honen 12. klausulan gaitasunari, fidagarritasunari eta kontratatzeko debekurik ezari dagokienez eskatutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, jarraian adierazitako eran.

Proposamena aldi baterako enpresa elkarte batean lehiatu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatutako dokumentazio horrek elkartea osatzen duten enpresa guztiei buruzkoa izan behar du:

(i) Lizitatzailearen eta, hala behar duenean, haren ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen dituzten dokumentuak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eskrituraren edo eratze dokumentuaren, Estatutuen edo bere jarduerak bete beharreko arauak biltzen dituen sorrera ekintzaren bidez egiaztatuko da, eta hala behar denean, dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta egongo dira dokumentu horiek, den pertsona juridiko motaren arabera betiere.

- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek, beren jarduteko gaitasuna frogatzeko, finkatuta dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria, Europar Batasunaren xedapen aplikagarrien arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren jarduteko gaitasuna enpresaren egoitza dagoen estatuaren Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren edo dena delako lurraldearen Kontsulatu Bulegoaren txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez, honako hau justifikatu beharko dute: atzerriko enpresaren Estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek kontratuak (SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoekin pareka daitezkeenak) egin ahal izatea bere administrazioarekin eta sektore publikoko erakunde eta entitateekin, funtsean antzekoa den moduan.
- Enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, pertsona fisikoak badira, Nortasun Agiri Nazionala, edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Beste baten izenean proposamenak aurkezten edo sinatzen dituztenek NANaren kopia bat aurkeztuko dute, eta horretarako beharrezkoa den ahalorde askietsia. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatua egon beharko du, baldin eta Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera beharrezkoa bada edo, bestela, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan egon beharko du inskribatua.

Dokumentazio horren guztiaren originalak aurkeztuko dira, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena

emanda dauden lizitatzaileek aukera izango dute erregistroko letratu arduradunak emandako indarreko izen emate ziurtagiriaren kopia aurkezteko, i) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Izen emate ziurtagiriarekin batera lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko da; haren bitartez adierazi beharko du dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla aldatu.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Hala behar bada, lizitatzailearen urteko negozio bolumena hauen bidez egiaztatuko da:

  - Onartu eta Merkataritza Erregistroan utzitako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatua egonez gero eta, hala ez bada, inskribatua egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroan legeztaturik dituzten inbentario liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute urteko negozio bolumena.

  - Lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena, bere negozio bolumena adierazten duena.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala behar bada, eskatutako kaudimena azken 3 urteetan emandako zerbitzuen edo egindako lanen zerrendaren bidez egiaztatuko da. Zerrenda horretan adieraziko dira zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa nahiz pribatua. Emandako zerbitzu edo egindako lan horiek egiaztatzeko, organo eskudunak egindako edo ontzat hartutako ziurtagiriak aurkeztuko dira hartzailea sektore publikoko erakundea baldin bada; hartzailea subjektu pribatua baldin bada, berriz, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da edo, halakorik izan ezean, lizitatzailearen adierazpena, eskura dituen eta prestazioa egin duela frogatzen duten dokumentuekin batera.

  Kontratista enpresa berri bat denean –bost urtetik beherako antzinatasuna duen enpresa gisa ulertuta–, haren kaudimen teknikoa SPKLren 90.1 artikuluaren b) eta e) letretan ezarritakoaren arabera egiaztatuko da.

- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena egiaztatzeko, organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da, eta horrez gain, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, egiaztagiria indarrean dagoela eta bertan islatutako baldintzek beren horretan

jarraitzen dutela frogatzeko. Esleipendun gertatuz gero, adierazpen hori berretsi egin beharko da kontratua formalizatzeko dokumentuan.

Agiri horren bidez egiaztatuko da enpresa adierazitako taldean eta azpitaldean dagoela sailkatuta, adierazitako kategorian edo kategoria handiago batean.

Agiri horrek, halaber, klausula honen 1. (i) atalean adierazitako inguruabarrak egiaztatu ahal izango ditu; hau da, lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, hala behar duenean, haren ordezkaritza.

(iii) Lizitatzaileak SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debeku bakar bat ez duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, agiri honi **VI. eranskin** gisa atxikitako ereduaren arabera.

(iv) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteak eta eguneratuak izatearen ziurtagiria.

(v) Hala dagokionean, **karatularen 10. puntuan** adierazitako eskakizun bereziak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

2. Hala badagokio, bere eskaintzan kontraturako adierazitako giza baliabideak eta baliabide materialak egiazki dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Kontratua gauzatzeko eskainitako giza baliabideei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

i) Kontratua gauzatuko duen talde osoa, izenez identifikatuta, curriculum vitaearen fitxekin batera, fitxa horietan frogatuta eskatutako baldintzak:

1. Titulazio akademiko ofiziala.

2. Esperientzia, dagokion arloan.

3. Hala dagokionean, erakunde kontratugileak eskatzen duen bestelako edozein informazio.

j) Aipatutako giza baliabide guztiak benetan eskuragarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

k) Kualifikazio profesionalaren osagarri, gutxienez atxikitako pertsonen esperientzia zerrendatu eta egiaztatu beharko da, eta horretarako enpresa bezeroen kontratuak edo ziurtagiriak aurkeztu beharko

dira, aipatutako pertsonek zerbitzu horiek eman dituztela egiaztatzeko moduan.

Datu pertsonalak babesteko arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudia jasotakoaren arabera, eta giza bitartekoei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea lizitatzailearen aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa erakunde kontratugileari entregatzeak, klausula honetan jasotakoa betetzeko, berekin ekarriko du lizitatzaile horrek datu pertsonalak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, aukeratutako lizitatzaileak datuak babesteko araudian xedaturikotik etortzen zaizkion eginbehar guztiak bete beharko ditu, aurreko paragrafoan adierazitako datuen tratamenduari eta lagapenari dagokienez. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduraduna den aldetik bete beharreko beste edozein obligazio bete behar izateaz gain, aukeratutako lizitatzaileak aipatutako datu lagapena gaitzen duen interesdunen baimen informatua eskuratu beharko du, bere erantzukizunpean; alderdi hori behar bezala egiaztatu beharko du AUSAren aurrean, hala eskatzen badu.

(ii) Kontratua gauzatzeko eskainitako baliabide materialei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

l) Kontratua gauzatzeko eskainitako baliabide materialen identifikazioa, eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.

m) Aipatutako baliabide material guztiak benetan eskuragarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Lizitatzaileek emandako informazioa benetakoa dela egiaztatzeko baldin bada, erakunde kontratugileak beretzat gordeko du egokitzat hartzen dituen egiaztatze lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu osagarri eskatzeko eskubidea.

3. Agiri honen 11. Klausulan finkatutako behin betiko bermeak jarri dituela egiaztatzen duen dokumentua.

4. Hala behar bada, adierazpenen notario akta, lizitatzaileak, eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **II. eranskineko** ereduaren arabera.

5. Hala dagokionean, aldi baterako enpresa elkarte gisa legearen arabera eratuta

dagoela egiaztatzen duen agiria; aldi baterako enpresa elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askirekin, kontratua iraungi arte.

Lizitatzaileek emandako informazioa benetakoa dela egiaztatzeko baldin bada, erakunde kontratugile bakoitzak beretzat gordeko du egokitzat hartzen dituen egiaztatze lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu osagarri eskatzeko eskubidea.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak baldin badaude, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari akats horiek zuzentzeko.

Adierazitako epean lizitatzaileak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo gabeziak baditu, bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa kanpo), zigor moduan. Eta dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta.

Kontratazio Organo bakoitzak aipatutako dokumentazioa jaso eta ondorengo bost lanegunetan esleituko du kontratua, eta gehienez ere bi hilabeteko epean, proposamenak ireki diren egunetik kontatzen hasita.

Erakunde kontratugile bakoitzaren Kontratazio Organoak esleipenaren erabaki arrazoitua jakinaraziko die hautagaiei eta lizitatzaileei, haiek jakinarazpenak jasotzeko adierazitako bidetik, eta erakunde kontratugile bakoitzaren kontratugilearen profilean argitaratuko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak haien formalizazioaren bidez burutuko dira.

Kontratuak lizitazio baldintzetara zehaztasunez egokiko diren dokumentu pribatuetan formalizatuko dira. Kontratua formalizatzeko dokumentuetan ezingo da sartu, inolaz ere, esleipenaren baldintzak aldatzea dakartzaten klausulak.

Hala eta guztiz ere, kontratuak eskritura publikoaren bidez egiteko eskatu ahal izango du esleipendunak, baina berak ordainduko ditu dagozkion gastuak.

Eduki berdineko bi kontratu izenpetuko dira AUSArekin eta GECASArekin.

Kontratuak hamabost egun balioduneko gehieneko epearen barruan formalizatuko dira, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratua burutu eta hamabost egun naturaleko gehieneko epean argitaratuko da erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuak ez badira jarritako epearen barruan sinatzen, dagozkion kontratuen lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigor moduan, eta behin betiko bermearen kontra gauzatuko da lehenik, SPKLren 71. artikuluaren 2) ataleko b) letran xedaturikoa eragotzi gabe. Kasu horretan, kontratuak hurrengo lizitatzaileari esleituko zaizkio, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta, agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ostean, hamar laneguneko epea emanez dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Erakunde kontratugilearen Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Arduradun horrek lanak gainbegiratuko ditu, erabakiak hartuko ditu, eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, erakunde kontratugileak ematen dizkion gaitasunen esparruan betiere, hitzartutako prestazioa behar bezala emango dela ziurtatzeko.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratugilekoa edo kanpokoa.

Kontratuaren arduradunak ematen dituen aginduak nahitaez beteko ditu enpresa kontratistak.

20. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua egikaritzean honako baldintza hauek beteko dira:

a) Kontratistak dituen terminoen eta baldintzen arabera egikarituko du kontratua, Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan eta bere Karatulan, eta Baldintza Teknikoen Agirian xedaturikoaren eta kontratistak aurkeztutako eskaintzaren arabera, eta aipatutako kontratu hori interpretatzean, erakunde kontratugileak kontratistari emandako aginduei jarraiki.

b) Kontratu hau aurrera eramateko, lan arloan, Gizarte Segurantzarenean eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko xedapenak, araubidezkoak eta konbentzionalak bete behar dira.

   Testuinguru horretan, esleipendun gertatuz gero, kontratuaren xedeko jarduera burutuko duten langile propioei edo azpikontratatuei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien adieraziko dute lizitatzaileek 2. gutun azalean (“Kuantifikatzeko balio judizioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa”). Kontratuaren xedeko jarduera burutuko duten langileei

kontratistak esandakoaren arabera aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipenaren ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Gainera, behin kontratua esleitu eta gero, langile horiei egiazki aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatzen zaion informazio guztia emateko obligazioa izango du esleipendunak.

Kontratua gauzatzen den bitartean, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko dio esleipendunak langile bakoitzari, dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ez da sekula ordainduko aipatutako hitzarmenean adierazitakoa baino soldata txikiagorik.

Atal honetan aurreikusitako betebeharrek gauzatzeko baldintza berezien eta funtsezko betebeharren izaera izango dute SPKLren 211.f.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta beraz, horiek ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da, erakunde kontratugileak hala nahi badu.

c) Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da.

d) Erakunde kontratugileak edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du kontratuaren araberako betebeharrak egokiro betetzen eta kontratua ongi gauzatzen ari direla.

Xede horretan, erakunde kontratugileak egoki irizten dituen kanpoko laguntzak eskatu ahal izango ditu kontratuaren araberako betebeharrak ondo betetzen ari direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko, bai eta lanak kalitate maila egokiarekin egiten ari direla egiaztatzeko ere.

Zerbitzuekin loturik erakunde kontratugileak eskatzen dizkion datu guztiak emango ditu kontratistak, inolako kostu gehigarririk gabe behar den laguntza guztia eskainiz, eta kontrataturiko zerbitzuekin loturiko lan, administrazio edo bestelako dokumentazioa ikusteko aukera ere emanez.

Kontratistak ezin izango ditu oztopatu erakunde kontratugileak egin beharreko ikuskatze eta kontrol lanak.

Hala eta guztiz ere, erakunde kontratugileak ez betetze edo eragozpenen bat sumatzen badu, zuzenean kontratuaren Arduradunari jakinaraziko zaio, eta azken buruan haren esku geratuko dira antolakuntza eta gainbegiratze gaitasunak edo, hala badagokio, zerbitzua ematen duten langileei zigorrak jartzeko gaitasuna.

e) Langile guztiak kontratistaren mende baino ez dira egongo, eta hark enpresaburu gisa dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu horiei dagokienez. Beraz, erakunde kontratistari ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin lan harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz.

Kontratista izango da erantzule bakarra edozein ezbehar edo erreklamazio (judizial edo estrajudizial) gertatzen bada, kontratua gauzatzen ari diren langile propioei edo azpikontratatuei lotuta, eta erakunde kontratugileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean edo zeharka hartutako inolako erantzukizunik, lanari (segurtasunarekin, higienearekin eta laneko osasunarekin loturikoa barne), Gizarte Segurantzari edo zergei dagokienez. Era berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzean sor litezkeen ezbeharretatik etorritako erantzukizun guztiak.

f) Hala badagokio, **karatularen 15. puntuan** eta berariaz adierazten diren baldintza guztiak bete beharko ditu kontratistak.

21. KONTRATUAREN BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratuaren betebeharrak:

a) Kontratuaren betebehar nagusia beteko da klausuletan eta Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian finkatutakoarekin guztiz bat etorrita.

b) Lan arloan, Gizarte Segurantzarenean eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko xedapenak, araubidezkoak eta konbentzionalak bete behar dira, agiri honen 20. klausularen bigarren gidoian ezarritako baldintzetan. Testuinguru honetan, kontratua gauzatzen den bitartean, aplikagarri den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko du kontratistak langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta sekula ere ez da ordaindu beharreko soldata aipatutako hitzarmenean adierazitakoa baino txikiagoa izango.

c) Kontratistaren eskaintzan kontraturen egikaritzari atxikitako giza baliabideak, izan langile propioak edo azpikontratatuak, eta baliabide materialak.

d) Bere kargura eskuratuko ditu bere jarduera aurrera eramateko beharreko lizentzia eta baimen guztiak.

e) Zerbitzuak ematea, unean-unean aplikagarria den indarreko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera. Ondorio horietarako, kontratistak nahiz kontratistaren langileek beharrezkoak diren ziurtagiri guztiak izango dituzte, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen obligazioak betetzen direla egiaztatzeko.

f) Behin betiko bermeak mantentzea eta berrezartzea.

g) Kontratua gauzatzen den bitartean, gutxienez, agiri honen 25. klausulak kontratistari eskatzen dizkion estaldurak eta aseguruak kontratatuko edo mantenduko ditu.

h) Kontratua gauzatzeko egin beharreko jardueren ondorioz hirugarrenei egindako kalte eta galera guztien kalte ordaina kontratistak ordainduko du.

i) Erakunde kontratugileak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat hartzen dituen zerbitzu guztiak emango dira, ordainduak izateko eskubiderik gabe, esate baterako, lan edo informazio bileretara joan. Kontratua amaitu arte edukiko da betebehar hori.

j) Greba gertatuz gero, zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek ez badira bermatzen, erakunde kontratugileak ahalmena izango du zerbitzu horiek betetzeko behar diren kontratuak sustatzeko, eta kontratistaren fakturaziotik kenduko da kontratu horien zenbatekoa.

   Greba garaian, egiaz emandako zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.

k) Langileak berehala ordezkatuko ditu, baldin eta ez badute beren lana beharrezko arduraz eta eraginkortasunez egiten, edo ez badute gaitasunik, kontu gutxi badute beren zerbitzuak egitean, edo kontratuaren martxa onerako ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Gehienez hogeita lau orduko epean egingo du hori, erakunde kontratugileak horretarako eskaera egiten dionetik aurrera kontatuta. Langileen ordezkatze horrek ez du inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratugilearentzat, kontratistak ukituriko langileekin dituen harremanei dagokienez.

   Langile horiek beren jarduera hasi aurretik egiaztatu beharko dute dagokien baimena badutela.

l) Langileak ordezkatzea gaixotasun bajengatik edo opor, baimen, lizentzia, istripu eta beste arrazoi batzuengatik sortutako langileen hutsuneak estaltzeko, kontratatutako zerbitzuen eraginkortasuna eta jarraipena bermatuz. Ordezkapenak 24 orduko epean egingo dira, gehienez.

m) Datuak babesteko dituen betebehar guztiak beteko ditu, eta betetzen dituela egiaztatuko du, Agiri honetan, Karatulan eta/edo alor horretan aplikagarri den legerian aurreikusitakoaren arabera.

n) Bete egingo ditu, hala dagokionean, eta **karatularen 16. puntuan** berariaz finkatzen diren betebeharrak.

Klausula honetan eta **karatularen 16. puntuan** jasotako obligazioak kontratuko funtsezko obligazioak izango dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez; beraz, kontratistak betetzen ez baditu, erakunde kontratugileak kontratua indargabetzeko aukera izango du, hala nahi izanez gero.

22. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratistak bete egin beharko ditu, datu pertsonalen tratamendua eta haien zirkulazio askea direla eta, pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudian (EB) (aurrerantzean, DBEO) aurreikusitakotik etorritako betebeharrak, bai eta datuak babestearen alorreko beste edozein arautan aurreikusitakoak ere, kontratuaren indarraldian zehar aplikagarria bada, bere jardueren esparruan, bere kontu eta erabakiz, egiten dituen datu pertsonalen tratamenduen ondorioz, aipatutako tratamendu horren Arduradun gisa.

Erakunde kontratugileak egin beharreko datuen tratamenduari buruz, hala badagokio**, karatularen 17. puntuan** berariaz xedatzen denaren kalterik gabe beteko da betebehar hori.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA

Kontratistak bete beharko ditu datu pertsonalen tratamenduari dagokionez ondoko arauetatik ondorioztatutako obligazioak: pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Halaber, bere jardueren barruan eta bere kontura eta erabakiz gauzatuko duen datu pertsonalen tratamenduaren ondorioz, kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatzekoa den datuak babesteari lotutako estatuko zein Europar Batasuneko edozein arautan bildutakoa bete beharko du, tratamendu horren arduradun den aldetik.

Kontratistak errespetatu egingo du kontratua gauzatzeko garaian irits dakiokeen informazioaren konfidentzialtasuna, Agirietan edo kontratuan informazio horri halako izaera eman baldin bazaio, edo duen izaeragatik beragatik informazio konfidentziala baldin bada.

Konfidentzialtasun betebehar hori **karatularen 19. puntuan** adierazitako epean mantenduko da.

24. ERANTZUKIZUNA

Egindako lanen eta eskainitako zerbitzuen kalitate teknikoa kontratistaren erantzukizuna izango da, bai eta kontratua egikaritzean izandako omisioek, erroreek, metodo desegokiek edo ondorio ez-zuzenek erakunde kontratugileari edo hirugarrenei eragindako ondorioak ere.

Kontratistak ordainduko du kontratua gauzatzeko egin beharreko jardueren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien kalte ordaina.

25. ASEGURUAK

Kontratistak, kontratuak irauten duen denbora guztirako, bere kontura kontratatuko ditu **karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak, bertan zehaztutako terminoetan eta baldintzetan.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Kontratistaren betebeharra izango da, baimendutako iturrien bidez eta soilik bere kontu, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoari jarraituz, lortu, jarri edota mantendu behar dituen ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo bestelako ekipamendu edo/eta baliabide lagungarriak erabiltzeko nahiz ustiatzeko lizentziak eta eskubideak eskuratzea, kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko.

Era berean, kontratazio honi guztiz aplikatuko zaio SPKLren 308.1 artikuluan ezarritakoa. Hori horrela, kontratuaren xede diren zerbitzuak bete ondoko emaitzaren gaineko jabetza, osoki hartuta edo edozein fasetakoa kontuan hartuta, soilik hura egin den erakunde kontratugilearena izango da. Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, kontratistak, hala badagokio, ez duenik izango egile izatearen eskubide moralik eta/edo asmatzaile gisa errekonozitua izateko eskubiderik, -erakunde kontratugileak behar bezala errespetatuta-, Jabetza Intelektualeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan edo/eta Patenteei buruzko uztailaren 24ko 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, eta hala badagokio, **karatularen 19. puntuan** berariaz zehaztutakoa baztertu gabe, kontratistak dagokion erakunde kontratugileari ziurtatuko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza era baketsuan erabiliko duela eta, hala badagokio, kontratua osatzen duen edozein elementuri buruzko lizentziak eta eskubideak zilegitasunez eta baimendutako iturrien bidez eskuratuko dituela; hori hala, entregatzeko unean, adieraziko du emaitza horretan ez dagoela kontratazio honen arabera erakunde kontratugileari dagozkion eskubideei kontra egiten dien inolako konpromisorik edo kargarik.

Nolanahi ere, kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek jabetza intelektualaren eta/edo industrialaren inguruan plantea ditzaketen erreklamazio guztien erantzule izango da enpresa kontratista, gai hauei dagokienez:

- Zerbitzuak ematean, jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideen bitartez babesturik dauden material, erreminta eta gainerako tresnen erabilera.

- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta emaitza hori osatzen duen edozein elementu.

Aipatutakoa kontuan hartuta, enpresa kontratistak kalte ordainak eman beharko dizkie erakunde kontratugileei, aipatutako kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik etor

daitezkeen kalte eta galera guztiengatik.

Esandako guztiaren ondoriozko ordainketa, hala behar bada, Agiri honen 7. Klausulan ezarritako kontratuaren prezioan sartuta dagoela ulertuko da.

27. ZIGORRAK

a) Zigorrak atzerapenengatik.

Kontratistak, berari leporatu dakizkiokeen arrazoiengatik, Agiri honetan eta/edo Karatulan finkatutako edozein epe betetzeko orduan atzerapena izan badu, erakunde kontratugileak kontratua indargabetu ahal izango du Agiri honen 33. Klausulan adierazitakoari jarraiki, edo obra gauzatzen jarraitzeko erabakia har dezake; azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen aldekoak izango dira, dagozkion kalte eta galerengatiko edozein kalte ordainez gain, **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak.

Kontratista berandutzeak ez du erakunde kontratugilearen aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko.

b) Zigorrak kontratatutako zerbitzuak gaizki emateagatik edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatik.

Kontratistak, berari leporatu dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako zerbitzuak gaizki ematen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratugileak kontratua indargabetu ahal izango du Agiri honen 33. klausulan adierazitakoari jarraiki, edo obra gauzatzen jarraitzeko erabakia har dezake; azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen aldekoak izango dira, dagozkion kalte eta galerengatiko edozein kalte ordainez gain, **karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak.

Zigorren zenbatekoak kontratistari ordaindu beharreko guztizko ordainketatik edo ordainketa partzialetik kenduko dira, edo, haietatik ezin kendu daitezkeenean, jarritako bermetik, eta eskatu egingo zaio jarritako bermea gainditzen duen zenbatekoa.

Nolanahi ere, hala kontratua bertan behera uzten denean nola kontratuari jarraipena ematea erabakitzen denean, erakunde kontratugileak bere aldetik erabaki ahal izango du zerbitzua egoki iruditzen zaion denboran jarraitzea, bere bitartekoekin edo hirugarrenen bitartekoekin, eta bi kasuetan jarraipenaren kostuak enpresa esleipendunaren kontuan kargatuko ditu. Gainera, Klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren ordainak eta bestelako ondorioak ordainduko ditu enpresa esleipendunak.

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluak finkatutako kontratistaren ondorengotza kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratua lagata baizik ez da bideratuko, betiere Klausula honetan ezarritako mugen barruan eta aukera hori **karatularen 22. puntuan** berariaz jasota baldin badago.

Laga ahal izateko, SPKLren 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) hizkietan eskatzen diren baldintzak bete behar dira, hauxe da:

a) Kontratazio Organoak aldez aurretik eta berariaz onartu behar du lagapena, betiere SPKLren 214.2 a) artikuluan xedaturikoaren bat etorrita. Bi hilabetekoa izango da baimen eskaerari buruzko erabakia jakinarazteko epea; behin epe hori igarota, eskaera aintzat hartu dela ulertuko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 exekutatuta eduki behar du, betiere SPKLren 214.2 b) artikuluan xedaturikoaren bat etorrita.

c) Lagapen hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa eta profesionala izan behar ditu, eta ez du kontratatzeko debekurik izango, betiere SPKLren 214.2 c) artikuluan xedaturikoarekin bat etorrita.

d) Lagapen hori esleipendunaren eta lagapen hartzailearen artean formalizatuko da, eskritura publikoan, SPKLren 214.2 d) artikuluan xedaturiko baldintzetan.

Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren zati baten gauzatzea hirugarrenekin adostu ahal izango du Klausula honek eta SPKLren 215. artikuluak xedaturikoa betez gero, hala badagokio, **karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezin.

kontratua esleitu ondoren, eta beranduenez, kontratua gauzatzen hastean, esleipendunak idatziz jakinaraziko dio Kontratazio Organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen azalduko dio, azpikontratistaren legezko ordezkariaren edo ordezkarien datuez eta harremanetarako datuez gain. Gainera, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatuko du, haren giza baliabideei, baliabide teknikoei eta esperientziari erreferentzia eginez. Era berean, SPKLren 71. artikuluak xedaturikoaren arabera, azpikontratatutako enpresak kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatuko du kontratistak.

Kontratista nagusiak idatziz jakinaraziko dizkio Kontratazio Organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio honetan izan litekeen edozein aldaketa eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia.

Azpikontratistak azpikontratuaren xedeko kontratuaren zatia gauzatzeko sailkapen egokia baldin badu, nahikoa izango da inguruabar horren berri ematea haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratatuek soilik enpresa kontratista nagusiaren aurrean izango dute betebeharra; beraz, enpresa kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa erakunde kontratugilearen aurrean, betiere Agirietan jasotakoa eta sinatzen den kontratuan adierazitakoa hertsiki beterik. Era berean, enpresa kontratistak du SPKLren 201. artikuluan xedaturiko ingurumen, lan edo gizarte arloetako betebeharrak betetzeko obligazioa.

Erakunde kontratugileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuak ezagutzeak ez du aldatuko kontratista nagusi horrek bere gain hartutako erantzukizun esklusiboa.

Azpikontratistei eta hornitzaileei SPKLren 216. eta 217. artikuluetan finkatutako moduan ordainduko zaie, eta artikulu horietan xedaturikoari jarraiki egiaztatuko dira ordainketa horiek.

30. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gainera, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **karatularen 24. puntuak** aukera horretaz berariaz ohartarazten duenean, eta bertan aurreikusitako baldintzen arabera.

Kontratuaren aldaketen ondorioz ezin izango dira kontratuan aurreikusi ez diren aleko prezioa berriak ezarri.

SPKLren 153. artikuluan xedaturikoari jarraiki formalizatuko dira kontratuaren aldaketak.

31. HARRERA ETA BERME EPEA

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazio osoa egin duenean, kontratuan bertan adierazitakoaren arabera eta erakunde kontratugilearen gogara.

Hala badagokio, zati bakoitzaren harrera egitean, bai eta lan osoaren harrera egitean ere, erakunde kontratugileak erabakiko du kontratistak egindako lanak haiek egiteko eta betetzeko jarritako baldintzen arabera egin diren eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta harrera dela eta sumatutako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsengatik edo hutsengatik, erakunde kontratugileak haiei uko egin ahal izango die, eta ez du ordaintzeko obligaziorik izango edo eskubidea izango du, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

Hori 27. klausulan aurreikusitakoa baztertu gabe, erakunde kontratugileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalteen eta galeren ordaina emateko ere, lanetan berandutzeagatik, kontratatutako zerbitzuak gaizki egiteagatik eta/edo kontratuan jasotako beste edozein baldintza ez betetzeagatik.

Karatularen 25. puntuan adierazten da berme epea.

Berme epe horretan egindako lanetan akatsak edo hutsak daudela egiaztatzen bada, Kontratazio Organoak eskubidea izango du enpresa esleipendunari akats eta huts horiek konpon ditzala agintzeko.

Berme epea amaitu eta erakunde kontratugileak ez badu Klausula honek aipagai duen eragozpen edo salaketaren bat egin, gauzatutako prestazioaren aurreko erantzukizun orotatik libre geratuko da kontratista.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratugileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta kontratistari ordaintzen badizkio ondorio horietarako berariaz aplikatu behar den SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalteak eta galerak.

33. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua iraungi egingo da guztiz betetzen denean edo jarraian araututakoaren arabera kontratua ezeztatzea adosten denean.

Kontratua ezeztatzeko arrazoiak izango dira, erakunde kontratugileak hala nahi badu:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratista egikaritzeko epeetan atzeratzea.

c) Kontratuaren eginbehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko obligazioak ez betetzea, baldin eta obligazio horiek funtsezkotzat hartu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako moduan ezin eman izatea, Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kontratua aldatu ezin bada.

f) Kontratua gauzatzen ari denean kontratistak hartan esku hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea edo, era berean kontratua gauzatzen ari denean, langile horiei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan finkatutako baldintzak ez betetzea.

g) Oro har, kontratuko edozein obligazio ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. atalean jasotako kontratua suntsiarazteko arrazoiak, berariaz aplikatzekoak direnak, honako hauek, hain zuzen ere:

   1. Zerbitzuak ematen hasi aurretik atzera egitea, edo, Kontratazio Organoari lepora dakiokeen arrazoiren bategatik, kontratua hasteko jarritako datatik zenbatzen hasi eta lau hilabete baino gehiagoan etenda egotea.

   2. Zerbitzua ematen hasi ondoren atzera egitea, edo zortzi hilabete baino gehiagoan kontratua etetea, Kontratazio Organoak hala erabakita.

Klausula honetan aurreikusitako ezeztatzeko arrazoia edozein dela ere, ezeztatze hori automatikoa izango da, eta erakunde kontratugileak hori egiteko erabakia kontratistari jakinaraztea besterik ez da beharko.

Jakinarazpena jasotakoan, enpresa kontratistak erakunde kontratugileari entregatu beharko dizkio berehala, eta haren esku utzi, kontratatutako prestazioak gauzatzeko une horretara arte eginak dituen dokumentu guztiak; bai eta kontratua dela eta, sortutako gainerako dokumentazioa eta informazioa ere, erakunde kontratugileak kontratistari entregatutako dokumentuekin batera. Dokumentu horiek guztiak erakunde kontratugilearen jabetzara pasako dira.

Horrek ez du esan nahi, ordea, gero dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo ez denik, jarraian xedatzen denaren arabera.

Klausula honetan adierazitako arrazoiengatik nahiz legez egoki izan litekeen beste edozein arrazoirengatik kontratua suntsitzen bada, horrek ekar ditzakeen erantzukizun ekonomikoak kontratua egiazki ezeztatu ondoren likidatuko dira; horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratugileak hura betetzen jarraitu ahal izatea.

Ezeztatze kasu guztietan, printzipioz, egiazki gauzatu dituen prestazio onartu guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak.

Kontratua kontratistari lepora dakiokeen edozein arrazoirengatik ezeztatzen bada, **karatularen 26. puntuan** aurreikusitako zenbatekoa sortuko da erakunde kontratugilearen alde, bidezkoak diren gainerako kalte-galerek eragindako kalte ordainez gainera. Bi zenbateko horiek behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeko dagoen preziotik kenduko dira, eta hortik gorako zatia eskatu egingo zaio.

Aurrekoa gorabehera, berariaz adierazten da SPKLren 313. artikuluaren 3. atala aplikatuko dela, hau da:

a) Klausula honen h.1 letran xedatzen diren ezeztatze kasuetan, kontratistak kontratuaren esleipen prezioaren % 3ko kalte ordaina jasotzeko eskubidea soilik izango du (BEZik gabe) kontzeptu guztiengatik.

b) Klausula honen h.2 letran xedatzen diren ezeztatze kasuetan, eman gabe utzitako zerbitzuak kontratatzeko esleipen prezioaren % 6ko kalte ordaina jasotzeko eskubidea izango du enpresa kontratistak (BEZik gabe), kontzeptu guztiengatik, etekin industrial gisa.

Azkenik, erakunde kontratugilea eta kontratista ados jar daitezke kontratua ezeztatzeko; kasu horretan, alderdien eskubideak beraiek balioz hitzartu dutenera egokituko dira.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak pribatuak dira. Prestaketari dagokionez, Klausula Administratibo Berezien Agiri hau eta Baldintza Teknikoen agiria izango ditu arau, eta esleipenari dagokionez, Klausula Administratibo Berezien Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLk ondorio horiei begira finkatutako arauak (esleitzeko ahalmena duten baina Administrazio Publiko ez diren sektore publikoko erakundeek egindako erregulazio harmonizatua bete behar ez duten kontratuetarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Klausula Administratibo Berezien Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria izango ditu arau, eta horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Nolanahi ere, SPKLren 319. artikuluan ("Ondorioak eta iraungitzea") xedatutako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari.

Horrez gain, SPKLa eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen araudi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikatuko dira agiri honetan arauzko testu horietara berariaz jotzen den guztietan.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko, azken horiek inpugnatzeko arrazoia SPKLren 204. eta 205. artikuluetan xedatutakoa ez betetzea bada, eta dena delako aldaketa hori egiteko beste esleipen bat egin behar zela ulertzen bada.

Hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, errekurtsoa aurkeztuko da Añarbeko Uren Mankomunitatearen presidentearen aurrean; baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera ere.

Klausula honen lehenengo paragrafoan adierazitako kontratuen aldaketen kasuan izan ezik, jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokienez aldeen artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

añarbe
urak aguas

ERANSKINAK

I. eranskina. Berme eredua

…….. (kreditu erakundearen edo elkarren bermerako elkartearen izena) erakundeak (IFK:…….. eta jakinarazpenak eta eskakizunak jasotzeko helbidea: ……..…) eta haren izenean …….(e)k (ahaldunaren izen-abizenak), egintza honetan jarduteko behar beste ahalorde duenak, dokumentu honen beheko aldean adierazten den ahalorde askiespenaren arabera, honako hau ABALATZEN du: …… (abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala), …….. IFK zenbakiduna, ……..(r)en aurrean eta ……..... euroko zenbatekoz, urteko kontuen auditoretza zerbitzuen kontratutik eratorritako betebeharrei erantzun diezaien.

Erakunde berme emaileak bere erantzukizunpean adierazten du bete egiten dituela Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan eskatutako betekizun guztiak. Abal hau solidarioa da obligaziodun nagusiari dagokionez, eta esklusio eta zatikatze eskubideari uko egitea dakar berekin; bestalde, abal emaileak […]ren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Abal hau indarrean izango da Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SAk indargabetzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

[…](e)n, […]ko […]aren […] (e)(a)n.

Sinadura

II. eranskina. Adierazpenen notario aktaren eredua, eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa betetzeko, lizitatzaileak asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko

…….. jaunak/andreak (NAN: ……), …… enpresaren (IKT.:……) legezko ordezkari gisa, adierazten du ezagutzen dituela ……. (enpresa lizitatzailearen izena) aurkezten den urteko kontuen auditoretza zerbitzuak kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta, esleipendun suertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina duela adierazten du, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta. Haren onarpena edo aldaketa …… baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hau Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SAren aurrean aurkezteak esan nahi du konpromiso hori onartzen dela, lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

[…](e)n, […]ko […]aren […] (e)(a)n.

Sinadura

III. eranskina. Europako kontratazio agiri bakarra (EKAB).

Kontratatzailearen profilean KEDB agiria eskuratu ahal izango da pdf formatuan nahiz xml artxibo moduan

IV. eranskina. Giza baliabide eta/edo baliabide materialak eskaintzeko konpromisoa

…….. jaunak/andreak (helbidea: …….. eta NAN: ……..), bere izenean edo …….. enpresaren izenean (helbidea: …….. eta IFK: ……..), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz urteko kontuen auditoretza zerbitzuen lizitazioa egingo dela, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU:

Esleipendun izanez gero, kontratuaren exekuziorako aipatutako kontratazioa arautzen duen karatularen 10. puntuan eskatutako gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak jartzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta horrela jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, giza baliabideak atxikitzeko konpromiso hau igortzen du, […](e)n, […]ko […]aren […] (e)(a)n.
.

[Sinadura]

V. eranskina. Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena

…….. jaunak/andreak (helbidea: …….. eta NAN: ……..), bere izenean edo …….. enpresaren izenean (helbidea: …….. eta IFK: ……..), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, urteko kontuen auditoretza zerbitzuen lizitazioa egingo dela jakinda, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU

1. Urteko kontuen auditoretza zerbitzuen kontratua exekutatzeko konpromisoa hartzen duela, honako baldintza hauen arabera:

   - AGASA eta GECASArentzat guztira eskainitako prezioa ……..euro/urteko (BEZ barne), honela banakatua:

     - …….. euro/urteko (BEZa gabe).
     - …….. euro/urteko (BEZa).

     Halaber, lizitatzaileek eskainitako prezioa erakunde kontratatzaile bakoitzerako banakatu beharko dute:

     - AGASArentzat eskainitako prezioa …….. euro/urteko (BEZa barne).

       - …….. euro/urteko (BEZa gabe).
       - …….. euro/urteko (BEZa).

     - GECASArentzat eskainitako prezioa ……..…….. euro/urteko (BEZa barne).

       - …….. euro/urteko (BEZa gabe).
       - …….. euro/urteko (BEZa).

   - Kontratuari esleitutako auditoretza-bazkidearen esperientzia osagarria kontratuaren xedearen antzeko auditoretza-lanetan …..….. X auditoretza lan

   - Kontratuari esleitutako auditoretza-taldeko buruak kontratuaren xedearen antzeko auditoretza -lanetan duen esperientzia gehigarria ……..…..… X auditoretza lan

   - Kontratuari esleitutako auditoretza-taldearen laguntzaileek kontratuaren xedearen antzeko auditoretza -lanetan duten esperientzia gehigarria ……..……..…… X auditoretza lan

- Ikuskapen-bazkideak Europako esparruko C1 euskara-titulua edo baliokidea du:

  Bai ☐

  Ez ☐

- Auditoretza-taldearen bi laguntzaileek Europako esparruko C1 euskara-titulua edo baliokidea dute:

  Bai ☐

  Ez ☐

- Auditoretza-taldeko burua Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean (KIEO) izena emanda dago:

  Bai ☐

  Ez ☐

- Kontratua sinatzen denetik kontratu mugagabea duten taldeko kideen kopurua (bazkidea izan ezik): ……..……..…… X kide

2. Ongi ezagutzen duela kontratua arautzen duen dokumentazioa, eta berariaz osorik bere gain hartu eta beteko duela.

[…](e)n, […]ko […]aren […] (e)(a)n.

Sinadura

VI. eranskina. Erantzukizunpeko aitorpenaren eredua

…….…….. jaunak/andreak (helbidea: ……..……... eta NAN: ……..), bere izenean edo ……..……... enpresaren izenean (helbidea: …….. eta IFK: ……..), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, urteko kontuen auditoretza zerbitzuen lizitazioa egingo dela jakinda, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehenengoa.- Eskaintza aurkezten egunean, ez du Sektore Publikoaren Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratazio debekuetako bakar bat ere. Lege horren bidez, Espainiako antolamendu juridikora eramaten dira 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak.

Bigarrena.- Berariaz onartzen du erakunde kontratugileak instituzio gardentasuna ematea lizitazio, esleipen eta gauzatze prozesutik (esleipendun suertatzen bada) etorritako datu guztiei amaitzen den arte.

[…](e)n, […]ko […]aren […] (e)(a)n.

Sinadura